

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pilar Kortadi Lasa

*Donostia,
Gipuzkoa
(1927)*

Aurkibidea



Biografia



Altzako Marrus baserrian jaio zen, eta hantxe bizi da orain ere. Hori bai, hainbat tokitan bizi izan da. Sei senide ziren, eta oso umetan hasi zen lanean: aita, gudari ibilia, kartzelan zegoen eta ama gaixotu egin zitzairen. Ez zuen eskolara asko joaterik izan, 11 urterekin Bretxara joaten hasi baitzen, “tratuarekin”, zaldi-karroan. 27 urterekin Intxaurrendoko Baratzategi baserrira ezkondu zen. Urte batzuen buruan baserria utzi behar izan zuten: etxebizitzak egiteko bota zuten; huskeria bat ordainduta bidali ei zituzten. Errentan bizi izan ziren Donostiako hainbat auzotan. Alargundu zenean Marrusera itzuli zen. Ez dio inoiz utzi plazara joateari, Bretxara.

Zintak

DON-026

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-10-01
- **Iraupena:** 135 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Gallastegi, Maddi

Pasarteak

1. Plazara 'boniato' bila

- **Erref:** DON-026/003
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:12:25. **Bukatu:** 00:14:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra garaian, San Markosetik botatzen zituzten tiroak kuartelera, Loiolara. Familia osoa plazara joan ohi zen ilaran amaren atzetik, errazionamentuko ogi bila, 'boniato' bila. Artoa eta babarruna izkutuan gorde behar izaten zuten, ez errekiatzeko.

2. Artoa errotara, babarrunak izkutuan

- **Erref:** DON-026/004
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:14:41. **Bukatu:** 00:15:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Errota
- Baserría » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

Artoa auzoko errotara eramán ohi zuten, beti arratsalde z eramaten zuten, ilundu ondorenean. Handik etxera ekarritako irinarekin taloak egiten zituzten, etxean ez zuten ogia egiteko ohiturarik.

3. Herreratik Bretxara, tratura

- **Erref:** DON-026/005
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:15:24. **Bukatu:** 00:19:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Herria, azpiegitura » Garraioak

Laburpena:

Herrerara joan ohi ziren tratura, asto karroarekin. Familia hazten joan ahala, zaldi karroarekin Bretxara jaisten hasi ziren. Ama gaixotu zenean, Pilar bizilagunekin jaisten zen tratura, Bretxara. Porruak, azenarioak... eramaten zituzten azokara, zaldi karroan.

4. Aitareñ espetxealdia I

- **Erref:** DON-026/006
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:19:34. **Bukatu:** 00:21:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Aita zinegotzia zuen, eta gerra garaian espetxean eduki zuten, Azpeitian eta Saturraranen, besteak beste.

5. Aitareñ espetxealdia II

- **Erref:** DON-026/007
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:21:39. **Bukatu:** 00:24:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gogoan du aitaren bila noiz etorri ziren, igande bat zen, familiako gehienak soroan lanean ari ziren, Pilar etxean jolasean ari zen bitartean. Aita espetxean egon zen garaiko etxeko gorabeherak kontatzen ditu.

6. Pentsuaren prezioak gora, esnearenak behera

- **Erref:** DON-026/008
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:24:21. **Bukatu:** 00:25:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:

<p>Esne behiak zituzten. Pentsuaren prezioak gora eta esnearenak behera egin zuenean, behiak baserritik kentzea erabaki zuten, eta baratzeak eta soroak ematen zutenarekin egin zuten aurrera.</p>

7. Azak garesti, letxugak merke

- **Erref:** DON-026/009
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:25:49. **Bukatu:** 00:28:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Esnea banatzera ere joaten ziren azokara. Barazkien tasak, ordea, ez omen zituzten behar bezala jarri, azak garesti eta letxugak merke. Herrerara ere joan ohi ziren zaldi karroa beteta, itsasora irteteko prest zeuden barkuak hornitzeko barazkiak eramatera.

8. Azokako liskarra

- **Erref:** DON-026/012
- **Iraupena:** 0:04:41. **Hasi:** 00:33:59. **Bukatu:** 00:38:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Azokako gorabeherak kontatzen ditu Pilarrek, kabo batekin izandako liskarra tarteko.

9. Bretxako azoka

- **Erref:** DON-026/013
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:38:40. **Bukatu:** 00:39:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Hasieran hamar baserritar inguru egon ohi ziren Bretxako azokan. Udazkenean, gaztainak-eta heltzearekin batera, baserritar gehiago heltzen ziren azokara saltzera.

10. Astoak asto kalean, zaldi karroak azokan bertan

- **Erref:** DON-026/015
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:39:39. **Bukatu:** 00:41:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Asto kalean lotzen zituzten astoak, plazara asto gainean joaten zirenek. Zaldi karroak, berriz, Aietetik, Igeldotik, Altzatik... iristen ziren azokara, eta hasiera batean azokan bertan gordetzen zituzten, baserritar gutxi egoten zirelako eta leku nahikoa bazegoelako. Esnea ere Bretxan banatzen zuten, azokan bertan.

11. Martuteneko eskolatik Altzako eskolara

- **Erref:** DON-026/016
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:41:07. **Bukatu:** 00:43:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Martuteneko eskolara joan zen lehendabizikoz, eta ondoren Altzako eskolara joan zen. Zorrotzak bezain gogorrak izan zirela dio, garai hartako eskola garaiak.

12. Gazterik parrandan

- **Erref:** DON-026/018
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:44:12. **Bukatu:** 00:45:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Oso gazterik hasi ziren gauez kalera irteten, Oialumera-eta. 14-15 urterekin, goizaldean mutilekin itzultzen ziren etxera. Aitari ez zitzaion gustatzen hori.

13. Mutilekin dantzan

- **Erref:** DON-026/019
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:45:50. **Bukatu:** 00:47:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Herriko jaietan mutilen batekin dantzan aritu eta harrapatuz gero, 'Hijas de María' kongregaziotik kanpo uzten zituzten neskak. Lagun artean ikasi zuen Pilarrek dantzan.

14. Igande goizetan, Erreteriarra eta Oiartzunera

- **Erref:** DON-026/020
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:47:54. **Bukatu:** 00:48:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua
- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Aste osoa Donostiako azokan pasa ostean, igande goizetan Erreteriarra joaten zen Pilar. Anaia, berriz, Oiartzunera, landareak saltzera. Denetik egin behar izan zuten garai hartan.

15. "Baratzategi" baserriaren galera

- **Erref:** DON-026/022
- **Iraupena:** 0:04:16. **Hasi:** 00:56:15. **Bukatu:** 01:00:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

Laburpena:

Ezkondutuek, senarraren baserriera joan ziren bizitzera, "Baratzategira", Intxaurrondora. Gauetik goizera, baserria kendu zieten xox batzuen truke.

16. Intxaurrondotik Zabaletara

- **Erref:** DON-026/023
- **Iraupena:** 0:05:27. **Hasi:** 01:00:31. **Bukatu:** 01:05:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserrria vs. Kalea

Laburpena:

Baserria kendu zietenean, Zabaleta kalera mugitu ziren, eta Okendo kalera ondoren, errentan, bertan hil zen osaba. Azkenik, senarra eta biek Egian hartu zuten etxea.

17. Kasua irabazi, baserria galdu, beti menpean

- **Erref:** DON-026/025
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 01:08:57. **Bukatu:** 01:12:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Jarrera politikoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

Baserria kendu zietenetik, Udalak hainbat baserritarrei kendu zizkien lurrak, etxea... bestelako proiektuak egiteko, euren interesekoak. Pilarren familiak, ongi ordaindutako abokatu baten laguntzaz kasua irabazi zuten arren, inork ez die baserririk itzuli.

18. 'Carbones Tenerife'

- **Erref:** DON-026/028
- **Iraupena:** 0:00:19. **Hasi:** 01:15:11. **Bukatu:** 01:15:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Ezkondututako zirenean, senarra Antxon hasi zen lanean, 'Carbones Tenerife' fabrikari. Gero hasi zen Loiolako ardo biltegian lanean.

19. Ganadutegia, dolarearen ordean

- **Erref:** DON-026/029
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 01:15:30. **Bukatu:** 01:16:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Dolarea zuten "Marrus"-en, baina Pilarrek ez zuen ezagutu "sagardogintza" bere baserrian. Gerora, ganadutegia jarri zuten dolarea zegoen tokian, baina pentsuak garestitu eta esnearen prezioak hondoa jotzean, hura ere kendu egin zuten.

20. Behiak jeizten

- **Erref:** DON-026/031

- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 01:17:29. **Bukatu:** 01:18:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko lanak

Laburpena:

Anaia zaharrenak jeizten zituen behiak. 'Kaldera' bat jartzen zuten bi hanken artean, eta eskuz, hara botatzen zuten behiei ateratako esnea. Handik ontzi handiagoetara botatzen zuten esnea, eta ontzi haietatik marmitetara. Gero, zaldi karroa prestatu behar izaten zen marmitekin eta abarrekin, azokara jeisteko.

21. Zaldi karroan Bretxara

- **Erref:** DON-026/032
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 01:18:19. **Bukatu:** 01:21:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Altzatik Bretxako azokara, ordubete inguruko bidaia izaten zuten zaldi karroan. Neguan gorriak ikusten zituzten, zaldi karroei toloak jartzen hasi ziren arte. Idiak eta zekorrak ere eraman izan zituzten, karroari tiraka.

22. Apustuak Altzako jaietan

- **Erref:** DON-026/033
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 01:21:52. **Bukatu:** 01:24:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Altzako plazan apustuak egiten ziren jaietan. Behi bat bazuten planta onekoa, zabala, indar handikoa, eta anaia zaharrenak hura eraman izan zuen plazara.

23. 'Txerrimunik'

- **Erref:** DON-026/035
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:24:56. **Bukatu:** 01:26:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Baserrian urtero izaten zuten txerria, negua izaten zen hura hiltzeko garaia.

Inguruko baserrietatik ere etortzen ziren txerriak prestatzen laguntzera, gero txerri haiek, auzokoen artean ere banatzen zirelarik, 'txerrimunik' esaten zitzairen.

24. Baserriko lanak

- **Erref:** DON-026/036
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:26:30. **Bukatu:** 01:28:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

Oiloak eta untxiak ere bazituzten baserrian. Gogoan du baba, garoa... nola biltzen zuten, eta nola pilatzen zuten atarian, ondoren aletzeko.

25. Taberna eta sagardotegietara, gizonezkoak

- **Erref:** DON-026/038
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 01:30:07. **Bukatu:** 01:31:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Inguruko taberna eta sagardotegietan ez zen emakumerik ibiltzen, gizonezkoak bakarrik.

26. Altza, ordutik hona

- **Erref:** DON-026/039
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:31:01. **Bukatu:** 01:32:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Altzako goiko aldea ez da askorik aldatu garai hartatik hona, bai ordea, poligonoa eta beheko partea.

27. Laia, goldea eta itaurrea

- **Erref:** DON-026/040
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:32:04. **Bukatu:** 01:33:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

Lurra lantzeko laiaren ordezkoldea erabiltzen hasi ziren gerora. Itaurrean ere aritzen ziren, Pilarri ez zitzaion gustatzen zezenen aurrean joatea, beldurtu egiten zen.

28. Gazterik etxeko lanetan

- **Erref:** DON-026/041
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 01:33:23. **Bukatu:** 01:36:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Ondoko baserrian bai, baina "Marrus"-en ez zuten beheko sua ezagutu, ekonomika bai. Oso gazterik hasi zen sukalde eta etxeko lanetan. Lapiko zaharrak eta halakoak ere, ondoko baserrian ezagutu zituzten.

29. Kantuan atez ate

- **Erref:** DON-026/042
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 01:36:27. **Bukatu:** 01:37:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Etxean ez zuten askorik kantatzen, baina egun seinalatueta jendea atez ate aritzen zen kantuan, euskaraz. Inauterietan-eta ere bai, goitik behera mozorrotuta. Dirua, janaria... ematen zieten, ate joka etortzen zirenei.</p>

30. Txerri eta oiloei artoa, ganaduari arbia

- **Erref:** DON-026/044
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 01:41:35. **Bukatu:** 01:42:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Txerriei patatak, artoa, noizean behin pentsua... ematen zieten jateko. Ganaduari, berriz, arbia ere bai. Oiloei ere arto ugari ematen zieten.

31. Belar metak

- **Erref:** DON-026/045
- **Iraupena:** 0:04:15. **Hasi:** 01:42:41. **Bukatu:** 01:46:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Behiei azpiak egiteko, Uliatik ekartzen zuten belarra. Pilarrek belar metak eta 'txorrokak' nola egiten ziren azaltzen du, urratsez urrats. Anaiak aritzen ziren belar mozten, segarekin.

32. Txurikinarekin eginiko koltxoia

- **Erref:** DON-026/046
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:46:56. **Bukatu:** 01:48:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

Artilezko koltxoirik ez zuten ezagutu, bai ordea txurikinarekin eginiko bat, artaburuen hostoekin egina.

33. Artalderik ez baserrian

- **Erref:** DON-026/047
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:48:32. **Bukatu:** 01:49:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Inguruan baziren arren, etxean ez zuten artalderik. Ahuntz bat bazuten baserrian.

34. Eguraldiari eta ilargiari begira

- **Erref:** DON-026/048
- **Iraupena:** 0:04:51. **Hasi:** 01:49:47. **Bukatu:** 01:54:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Ohiturak eta bizimodua

Laburpena:

Haziak ereiteko eta baita sagardogintzan aritzen ziren lekuetan ere, eguraldiari eta ilargiari asko erreparatzen zieten. Ilbehera edo ilberri, garai bakoitzean zerbait landatzeak ondorio desberdinak zekartzan.

35. Enplastuak hanka azpian

- **Erref:** DON-026/049

- **Iraupena:** 0:05:10. **Hasi:** 01:54:38. **Bukatu:** 01:59:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

Ferratzaileak eta al baitariak etxera joaten zitzaizkien. Al baitariarengandik ikasi zuten enplastuak egiten, pasmo belar, berbena eta plantiña belarrekin. Trapuan bildu eta hanka azpian jarri behar izaten zen. Pilarren aitak, bere garaian, ez zuen berdin egiten, brontzezko tramankulu bat erabiltzen omen zuen belarrak zanpatzeko.

36. Ur korronterik ez etxean

- **Erref:** DON-026/050
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 01:59:48. **Bukatu:** 02:00:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Ur korronterik ez zuten etxean, edateko ura erreketatik ekartzen zuten, marmitetan. Gerora, hodiak sartu zituzten.

37. Gaztetako gorabeherak

- **Erref:** DON-026/051
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 02:00:27. **Bukatu:** 02:01:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

Gaztetan ez zuten errekan bainatzeko ohiturarik, ez zekiten igeri egiten. Zenbaitetan, udare txikiak lapurtzera joaten ziren ondoko baserriren batera, mutilek udareak arbolatik hartu eta neskei botatzen zizkieten, hauek magalean jaso zitzaaten.

38. Tabernan baino, dantzan nahiago

- **Erref:** DON-026/053
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 02:02:40. **Bukatu:** 02:03:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Neskak ez ziren tabernetara sartzen, bertsolariak-eta entzutera joateko ohiturarik ere ez zuten. Halere, oso festazaleak ziren, asko gustatzen zitzaien festetan dantza egitea, bai neskekin, eta baita mutilekin ere.

39. Jostunarengana arropak jostera

- **Erref:** DON-026/054
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 02:03:53. **Bukatu:** 02:06:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

Jostunak josten zizkien arropak, eta arropak jostez gain, josten ere irakasten zion hainbati. Pilar ez zen joaten josten ikastera, nahiko lan bazuelako azokara joatearekin. Ahizpa, ordea, aritu zen horretan.

40. Igandero mezara

- **Erref:** DON-026/057
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 02:09:14. **Bukatu:** 02:11:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Igandero bost terdietako eta seietako mezara joaten ziren Altzara. Familiako denak elkarrekin joan ohi ziren elizara.

41. Igandeetan Erreterian dantzan

- **Erref:** DON-026/059
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 02:12:20. **Bukatu:** 02:14:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Igandeetan inguruko herrietara, Erreteriarra-eta joateko ohitura zuten, dantza egitera. Gurasoek ikusi ez zitzaaten, edozein bide edo erreka bazterretatik joan, edo itzuli ohi ziren etxera.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com